

Ondarrun, 2018ko apirilaren 12an:

Ekai maitea:

Alferrik izan arren, ezin dut saihestu azalpen eske hastea eta denen gainetik, galdera bat egin nahi nizuke: "Zergatik?". Denei galdetzen diet gauza bera, eta denek galdetzen didate gauza bera. Gauero aitonari "Zergatik?" galdetzen diot oheratzen garenean. Goizetan, zure amari deitzen diodanean ere berdin: "Zergatik?". Arratsaldetan kafea hartzera ateratzen garenean ere bai izeba Maritxuri... Eta beraiek ere niri gauza bera galdetzen didate. Eta inork ez dauka erantzunik. Ez beraiek, ez nik. Zuk ba ote daukazu?

Gogorra ari da izaten zure galera. Gogorra noiz, non eta zertan hanka sartu ote dugun pentsatzen aritzea. Gogorra zure etxera sartu eta zu bertan ez ikustea. Gogorrek gauak. Gogorrek egunak. Gogorrek.

Hamasei urterekin egin duzu zeure buruaz beste. "Bizitza zer den ere ez zuen jakingo oraindik" esango lukete ezagutzen ez zintuztenek. Baina nik badakit zuk ederki zenekiela zer den bizitza. Zer den bizitza eta zer den norbere bizitzarekin borrokan aritzea.

Zuk zeure buruaz beste egin duzun adin horrekin berarekin hasi nintzen ni aitonaekin *nobiotan*. Orduan horrela izaten zen. Pixka bat lehenago Ondarroako portuan lanean hasi nintzen, 12 urterekin edo, sare konpontzaile moduan. Orduko nire kezka bakarrak sos batzuk biltzea, senargai on bat bilatzea eta nire lana ondo egitea ziren. Egunean hamar eta hamabi ordu pasatzen nituen Ondarroako portuan saregile lanetan. Sare berriak egin, zaharrak konpondu... Horretan igaro nuen denbora urte luzez, eta portuan ezagutu nuen zure aitona ere. Gogoratzen naiz oraindik *Madalen* itsasontzitik lehorreratzten lehen aldiz ikusi nuen egun hartaz...

Tristura sortzen dit zuk hori guztia ezin izango duzula bizi pentsatzeak. Pentsatzeak ezin izango duzula hainbeste borroka egin ondoren, inork zure izena eta izana zalantzan ez jartzeaz gozatu. Ez kanpokoek baina ezta etxekook ere.

Beti izan duzu zegokizunagatik borrokatzeko grina. Txikitan beti esaten genizun, "Ze neska polita zaren, Elaia", "Zeinen guapa jantzi zaituzten", "Zeinen jatorra den gure neskatoa"... baina zuk beti esaten zenigun ez zeundela ados guk esaten genizunarekin. "Ni ez naiz guapa" edota "Ni ez naiz neska bat" izaten ziren hasierako zure kexak... baina azkenerako zer ez zinen ezezik, argi uzten zenigun zer eta nor zinen ere: "Ni mutil bat naiz" edota "Nik Ekai izena dut" esanez.

Hasiera batean gogotik saiatu ginen zuri hori guztia burutik kentzen. Nola zen posible gure Elaia maitea mutil bat izatea? Jaio orduko panpinak oparitzen genizkizun. Eta kamiseta arrosak. Koskortzean, balletean, musika eskolan eta antzerki tailerlean apuntatuko zintugula pentsatuta geneukan. Ez futboleak, ez pilotan, ezta bertsoaritzan ere. Ez zen posible orduan zuk, lurtean ikusi ere egiten ez zen haur batek, guri amets eta ilusio horiek guztiak desegitea.

Baina denbora aurrera joan zen eta zuk zeurean jarraitzen zenuen. Eta guk geurean jarraitzen genuen. Desesperazioaren desesperazioz *Baby Bornen* kotxe kapota eta panpina berriena oparitu genizkizun eta baita azkazalak eta begiak pintatzeko margoak ere, margotzea baitzen zure jolas gustukoena. Baina alferrik. Soineko eder askoak ere josi nizkizun, baina alferrik haiek ere. Alfer-alferrik. Gerora konturatu naiz soineko haiek josten ari nintzen bitartean, gaztetan moduan, sareak egiten ari nintzela. Ihesbiderik gabeko sareak. Arrain gazteak harrapatu, arrastan eraman eta hiltzen dituzten sareak.

Biloba bat galtzea gogorra bada, biloba bera bi aldiz galtzea ez da xamurragoa. Biloba bi aldiz galdu dudala esaten dudalako erotzat hartuko naute askok. Baina halaxe izan da, bi aldiz biloba bera galdu baitut nik. Erraza da ulertzen.

Gogoan daukat zure gurasoak genero aldaketaren kontu hori guztia azaltzera etxera etorri ziren arratsalde hura. Udazkeneko arrats euritsu bat zen. Ama izan zen hitz egin zuena: "Hemendik aurrera Elaia Ekai izango da. Beno, hobeto esanda orain arte ere Ekai izan da, nahiz eta guk Elaia deitu diogun. Bera beti sentitu izan da mutil eta hemendik aurrera guk ere den bezala onartu eta tratatuko dugu. Eta Ekai izenako du". Hura izan zen lehen aldiz biloba galdu nuela sentitu nuen unea. Elaia galdu nuen. Neska alai, eder eta bizkorra. Nire biloba maiteena. Une hartan nik ez nuen Ekairik nahi. Nik Elaia nahi nuen. Eta Elaiarik ez zegoen jada gure artean. Egun batetik bestera desagertu egin zen. Edo transformatu, une hartan are ulergaitzagoa egiten zitzaidana.

"Gaur egungo umeek ez dakite zer nahi duten ere", "Nahi dutena egiten uzten zaielako gertatzen dira horrelakoak", "Laster burutik aterako zaio txorakeria hori eta berriro ere Elaia izan nahi duela esango du. Edo beste izen bat akaso"... Egunak pasa nituen nire ezinegona esaldi ganoragabeekin argudiatu nahian. Aitona mutu egoten zen. Ez zuen hitzik egin ia hilabetez. Isiltasuna zen bere disgustuaren eta minaren bozeramailea.

Gogorra izan da guretzat zure aldaketa hau guztia. Gure garaian ez zen horrelakorik izaten. Mutilak mutil izaten ziren eta itsasora joaten ziren arrantzara. Neskak aldiz, neska ginen eta portuan geratzen ginen sareak konpontzen. Ez zegoen ez mutila zen neskarik, ezta neska zen mutilik ere –ez zuen inork aitortzen behintzat.

Denborarekin ohartu naiz, ordea, ez nuela Elaia galdu, Ekai irabazi dudala baizik. Eta Elaia Ekairen barruan egon dela. Kostata baina konturatu naiz eta geroztik Ekai izan zara niretzat. Nire biloba maiteena.

Otsailaren 17an galdu nuen bigarren aldiz biloba. Edo galdu nituen lehen aldiz bi biloba –esan nahi duzun moduan, mina berbera baita. Behin honaino iritsita, borrokatu duzun guztia borrokatu ondoren, lortu duzuna lortuta... "Zergatik?" galdetzen dut behin eta berriz. Baina inork ez dauka erantzunik. Zuk ba ote daukazu?

Ahaztuko ez zaituen amona Mila.

P.D.: Aitonak komunean bakarrik dagoenean egiten du negar. Logelatik entzuten dut. Ez zizun sekula aitortu baina harro dago zutaz.